

## ALDEZ AURREKO KONTSULTA PUBLIKOA EZ EGITEKO TXOSTENA

Hala xedatzen baitu 133.1 artikuluan Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legeak, erregelamendu proiektu bat egin aurretik, kontsulta publiko bat gauzatu behar da, Nafarroako Gobernu Irekiaren Atariaren bidez, non jasoko baita zer iritzi duten etorkizuneko arauaren eraginpean gerta litezkeen subjektuek eta ordezkariak handieneko erakundeek, honako hauei buruz:

- a) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.
- b) Araua onestea beharrezkoa eta egokia den.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Aukeran dauden beste alternatiba batzuk (arauemaileak eta arauemaile ez direnak).

Dena dela, artikuluko horren 6. apartatuak ezartzen du halako kontsulta publikoa ez egitea ere badagoela, baldin eta arau-proposamenak eragin esanguratsurik ez badu jarduera ekonomikoan, arauaren xede diren herritarrei betebeharrak garrantzitsurik ez badakarkie edo arautzen dituen aspektuak partzialak badira.

Ildo horretan, kontuan hartu behar da 11/2019 Foru Legearen 133.6 artikuluan hitzez hitz jasotzen dela transferentzia bidez zorrak ordaintzeko prozedura eta baldintzak arautzen dituen Foru Aginduaren Proiektua; izan ere, foru aginduaren proiektua egin aurretik kontsulta publikoa ez egitearen oinarri diren betekizunak jasotzen ditu, jarduera ekonomikoan eragin esanguratsurik ez duen eta, gainera, gaiaren alderdi partzialak arautzen dituen arau-proposamena baita.

Aipatutako foru aginduaren proiektua Nafarroako Foru Ogasunaren webgunean argitaratuko da, eta Nafarroako Partaidetza Atarian, herritarrek horren berri izan dezaten.

Iruñean, 2022ko irailaren 30ean.

*Elektronikoki sinatu du dokumentu hau Cristina Sarasa Villaverde Arauen Garapen eta Aholkularitza Juridikorako Zerbitzuko zuzendariak.*